

GARAZIKO HERRI BATEN IZENAZ: *AINHIZE VS. AINHIZA*

Patxi Salaberri Zaratiegi

Izkribu honetan Nafarroa Behereko Garazin den *Ainhize* herriaren izentzat, frantsesez *Ainhice* deitzen den horren izentzat, *Ainhize* –eta ez *Ainhiza*– zergatik aukeratu zen arrazoitu nahi dut. Honetaz landara eta bidenabar, toponimoaren etimologiaz ere mintzatu gogo dut, laburki baizik ez bada ere. Honetarako, gehienbat, berriki argitarata emandako Nafarroa Behereko herri izenen gaineko nire lanean ageri den dokumentazioa ibiliko dut, nahiz ez den nahi nukeen bezain aberatsa.

Beraz, nik ditudan datuetan ikusten dut *Ainize* eta *Ainiza* azaltzen direla, bigarren hau gehiago ahoz bildutako aldaeretan, baina egia da galdeketa gutxi egin nituela eta arlo hau aise aberats eta ugari daitekeela. Dokumentazioari dagokionez, itxuraz *Anhiz* irudikatzeke ibili zen *Anfiz* da ezagutzen dugun lehen lekukoa, 1135-1136 urteetakoa. Hemendik aitzina toponimoa beti bukaeran bokala duela (izan dadin hau *-e*, izan dadin *-a*) agertzen da, *aniça* 1264an eta 1266an, *anice* 1294an. XIV. mendetik aitzina bi aldaerak azaltzen dira, menturaz arduraxeago *-e* duena. Hitz barneko hasperenketa 1304ko *Anhice*-n aurkitzen dugu lehen aldiz, aipatutako *Anfiz* aldaera alde bat uzten badugu.

Laburbilduz, eta datuak ikusirik, hurrengo ondorioak atera daitezkeela uste dut:

1. Etorkizko aldaera bukaeran bokalik ez duena bide da, egungo grafian *Anhiz* idatziko genukeena.
2. Bukaerako bokala *-e*, izan dadin *-a*– geroko gehigarria dela dirudi, baina datu gutxiegi izateak ziurtasunez mintzatzetik gibelatzen gaitu. Nolanahi ere, aspaldi-aspaldiko eranskina da, eranskina bada behintzat, ez Iparraldeko egungo franko toponimok duten *-e*-ren garaikoa.
3. Azken bokalaren irekitze maila ezin zaie, nire irudiz, aldameneko erdarari edo erdareari leporatu, XIII. mendekoa delako. Alegia, ez dut uste *-e* bukaerakoa *-a* baino erdaldunduago dagoela.
4. Hasperenketa zaharra da eta, nik uste, atxiki beharrekoa, neronek bildutako ahozko datuetan ageri ez bada ere. Hizkuntza ofizialean azaltzen den <h>, ezbairik gabe, oraindainoko euskal ebakeraren ispilu da.

5. Etimologia ez da argia. Nihaurk (2003: 91) Baztango *Aniz*-endako proposatu nuen *Hanni*, *Anni* antroponimo ongi dokumentatua eman daiteke oinarritako (**Anniz* > *Anhíz*). Toponimoaren barneko hasperenketa segur aski azentuari zor zaioke (cf. *aunatu* / *unhátu*, *mánü* / *manhátü*, *máñü* / *mañhátü*. Ikus Mitxelena 1977: 407-410 eta Agud & Tovar, 1990: 105); badaiteke, zernahi dela, **Hanníz* > **Hanhíz* > *Anhíz* bilakaera gertatu izana (cf. *haur* baina *aurhíde*, *hil* eta *herri*, baina *ilhérri*, Mitxelena, 1977: 211-212), hau da, lehen hasperenketa atzeranzko disimilazioz galdu izana. Leku izenaren erdiko *-i-* hori, bestalde, bigarrenkaria da –XIV. mendearen bukaeran ageri da lehendabiziko aldiz, baina 1412-13an oraindik bokal sabaikaririk gabeko *Anhice* dago–, *aingeru*, *aingira* eta *aingura*-n dugunaren modukoa, sudurkariarekiko ukipenean garatua. Toponimoaren lehen adiera, honen arabera, (*H*)*anni* izeneko baten (tarteko sudurkaria, *-nm-* idatzia, gogorra da eta horregatik ez da erortzen) bazterretxea edo lur-eremua zatekeen. Izan ere, bukaerako *-(i)(t)z* hori, nire irudiko, jabeagoa adierazten zuen latineko genitibotik atera baita. Guztiarekin ere, azalkizun gelditzen da zergatik ez den erraten, eta ez den erran, guk dakigula, **Ainhitz(e)* edo **Ainhitz(a)*, Lapurdiko *Beraskoitz* (< *Berasko* + *-itz*) > *Beskoitze*-ren eta Nafarroa Garaiko *Ilurdotz*-en (< *Ilurdo* + *-tz*) erara, baina igurzkaria agertzea aski gauza zabaldua da Euskal Herriko mendebaldetik kanpo ere (cf. Baztango *Aniz*).
6. Literaturan, berriz ere nik bildu datuetara mugatuz, toponimoak ez du bere burua erakustera sobera eman, eta aurkitzen dugunean *-e*-rekin (behin) nahiz *-a*-rekin (hirutan) agertzen da.
7. Toponimia lanetan eta hiztegiatan gehienbat *-e*-dun aldaera bildu da (Hatan, Azkue, Lhande, Dassance, Goihenetxe, Lemoine), *-a* ere inoiz azaltzen den arren (Lécluse). Orpustanek *Ainhiza* eta *Ainhize*, biak, jasotzen ditu.
8. Orain arteko erabilera gidatu duen Euskaltzaindiaren 1979ko lanean *Ainhize* dago, *Ainhize-Monjolose* elkartuan.
9. *Ainhiza*-ren aldeko pisuzko arrazoi erabakigarriak ez baitzen, Onomastika batzordeari zentzuzkoena lehengo bidetik, aipaturikako 1979ko lanak urratutakotik jarraitzea iruditu zitzaion, hots, *Ainhize* berrestea.
10. Osoko bilkuran *Ainhize* onartu zen aho batez, ez *Ainhiza*, eta horrela argitaratu zen Akademiaren arauetan (122.a da, Euskaltzaindia, 2002: 716).

BIBLIOGRAFIA

AGUD, M. & TOVAR, A. (1990): *Diccionario Etimológico Vasco II. Arduñ-beuden*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

EUSKALTZAINDIA (1979): *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, Bilbo.

— (2002): «Nafarroa Behereko herri izendegia (I)», *Euskera* 47, 2002-2, 716-720.

MITXELENA, K. (1977): *Fonética Histórica Vasca*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 2. argitalpena.

SALABERRI, P. (2003): *Euskal Deiturategia: Patronimia*, UEU, Bilbo.

— (2004): *Nafarroa Behereko herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Onomastika batzordeak, Patxi Salaberri batzordekideari eskatu zion txosten hau onartu zuen 2005eko uztailaren 14an, Ziordian egin zuen bileran.